



MENOKO, LANDA GARAPENOKO ELKARTEEN FEDERAZIOA, PLAN ESTRATEGIKO BERRI BATEAN ARI DA LANEAN, ETA BERE IRUDI KORPORATIBO BERRIA PLAZARATU DU

2022ko azaroaren 17an

URKOME LANDA
GARAPEN ELKARTEA

EMAIL: urkome@urkome.eus

TEL: 943 816500

- Menekok eta hau osatzen duten Euskadiko 18 Landa Garapen Elkarteek (LGE), irudi korporatibo berria plazaratu dute, Euskadiko *itsasoa*, *mendia* eta *eguzkia* lotuz.
- Landa Garapen Lege berriak aurrera egin nahi du, EBk bultzatzen duen Lurralde Kohesiorako Politikaren ildotik.
- Menekok, 35 urte betetzear dagoen federazioak, landa-garapena bultzatzen jarraituko du Euskadin

Menekok, Euskadiko Landa Garapenerako Elkartearen Federazioak, marka irudia aldatu eta logotipo berria, modernoa eta bateratua kaleratu du. Bai Euskadiko federazioak, bai lurralde bakoitzeko federazioek, **Landaola** (Gipuzkoa), **Bizkaimendi** (Bizkaia), **Arabalanda** (Araba)] eta hauek osatzen dituzten 18 Landa Garapen Elkarteek, logotipoa partekatuko dute, horien guztien arteko batasuna eta lankidetzaz islatuz.

Bere irudi korporatiboaren bilakaera, federazioak lantzen diharduen Plan Estrategiko berriaren barruan sartzen da. Plan hori federazioaren barneko eta kanpoko komunikazioa hobetzean eta LGEen artean lankidetzaz handiagoa izatean oinarritzen da. *Itsasoa*, *eguzkia* eta *mendia* kontzeptuak batuz eta euskal tipografiarekin lagunduz, logo berriak Euskal Autonomia Erkidegoko herri eta txoko guztiak barne hartzea du helburu.



Menekoren aldaketak ekainaren 30ean onartutako Euskadiko Landa Garapenerako Lege berriarekin datoz, orain arte 1998tik indarrean zegoena ordeztzen duena. Lege berriaren arabera, landa-garapen iraunkorra "funtsezko faktorea da EAEko ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesiorako", eta *rural-proofing* ikuspegia du oinarri, gure landa-inguruneari eragiten dioten politikak diseinatzeko orduan. Estrategia berri horren barruan, Menekoren eta 18 LGE-en egunerako lana indartu egingo da, Euskal Landa Garapenerako Sare bat eta "Lurralde" izeneko zerbitu bat sortuz. Zerbitzu berri hori, HAZI Fundazioak kudeatuko du.

la 35 urte daramatza Menekok EAeko landa-garapenaren alde lanean, eta, lege berriak bezala, landa-ingurunea gainerako lurraldeekin berdindu nahi du, "berrikuntzari, modernitateari eta ekintzaitzari dagokionez. Federazioak ere, aldaketa berrietara egokitu eta gizartera gehiago hurbildu nahi du, orain arte egin duen bezala, Euskadiko landa eremuko biztanleria guztiaren beharrei erantzunez.